

Euskadiko Kultura eta Sormen Industrien Covid osteko bilakaera 2020-2022



Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoa aurki daiteke:

<https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>

Argitaraldia: 1.a, 2023ko abendua

© Egilea: Jabier Retegi, Ibone Eguia, Mercedes Oleaga, Imanol Aizpuru

Argitaratzailea:

Eusko Jaularitzaren Argiltapen Zerbitzua
Servicio Central de publicaciones del Gobierno Vasco
C/ Donostia- San Sebastian 1, 01010

Koordinatzailea: Observatorio Vasco de la Cultura

Itzultzailea: Lete itzulpenak-traduccionen, SL

Disenua eta konposizioa: EPS Comunicación

ISBN: 978-84-457-3736-1



KULTURA- ETA SORMEN-INDUSTRIEN POSIZIONAMENDUARI
BURUZKO AZTERLANAK

Euskadiko Kultura eta Sormen Industrien Covid osteko bilakaera 2020-2022



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura



Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2023

| AURKIBIDEA

Taulen zerrenda.....	5
Irudien zerrenda	6
Laburpen exekutiboa.....	7
1. Aurkezpena	10
2. KSlen sektoreko enpresa-demografia	13
3. Beste eremu geografiko batzuekiko analisi konparatiboa	18
4. KSlak lurralde-historikoetan	22
5. KSlen nortasun juridikoa	28
6. KSlen balio-kateetako enplegua	32
7. KSlen enpleguaren bilakaera, jarduera-ildoen arabera, COVID-19aren aldian....	37
8. Kultura- eta sormen-produktuen helmuga euskal ekonomian	43
9. Ondorioak	50
Bibliografia	58

| TAULEN ZERRENDA

2.1 taula.	KSI enpresen bilakaera EAEn (2020/01/01 - 2022/01/01).....	15
3.1 taula.	KSI enpresen alderaketa, 100.000 biztanleko	20
3.2 taula.	KSI enpresen ehunekoaren alderaketa, enpresen totalarekiko	21
4.1 taula.	KSI enpresen eboluzioa LHetan.....	24
4.2 taula.	KSIn banaketa LHen eta eremuaren arabera (EAeko KSI enpresen totalaren %)	26
5.1 taula.	KSI sektoreko enpresa ertainen nortasun juridikoa EAEn.....	29
6.1 taula.	KSI enpleguaren bilakaera 2020-2022 aldian, balio-kateen eta Euskadin duten pisu osoaren arabera.....	34
7.1 taula.	KSI jarduera-ildoaren bilakaera (2020ko urtarrilaren 1a-2022ko urtarrilaren 1a).....	38
7.2 taula.	Enplegua KSI eremuetan eta jarduera-ildoetan.....	39
7.3 taula.	KSI enpleguaren aldakuntza-portzentajea 2020/01/01 eta 2022/01/01 artean, arloaren eta jarduera-ildoaren arabera	40
7.4 taula.	KSI enpleguaren bariazio-a 2020/01/01 eta 2022/01/01 artean, arloaren eta jarduera-ildoaren arabera (%)	41
8.1 taula.	Aztertutako produktuak eta zerbitzuak.....	44
8.2 taula.	Euskadiko KSI produktuen eta zerbitzuen helmuga.....	45

8.3 taula.	KSI produktu eta zerbitzuetako bitarteko eskarirako jardueraildo ohikoenen Top 10.a	47
9.1 taula.	KSlen bilakaeraren laburpen-fitxak, eremuaren arabera	53

| IRUDIEN ZERRENDA

8.1 irudia.	KSI produktu eta zerbitzuen sailkapena, helmugaren arabera (bitarteko eta bukaerako eskaria).....	46
--------------------	---	----

LABURPEN EXEKUTIBOA

2022ko urtarrilean, Euskadiko Kultura eta Sormen Industrian (KSI) pandemiaren aurreko egoerara leheneratu dira enplegua eta enpresa-kopurua. Halaber, KSIn ordezkagarritasuna areagotu egin da Euskadiko enpleguaren esparruan.

Aztertutako aldian (2022 vs. 2020) 231 lanpostu sortu dira guztira; hots, % 0,68. Azken urtean zehar (2022 vs. 2021) 794 postu berri sortu dira; hots, % 2,3 gehiago, eta horrek agerian uzten du 2021 ean zehar bizi izan dugun berreskurapenaren azelerazioa.

Horren ondorioz, Euskadin KSI jardueren enpleguaren ehunekoa % 3,69 izatetik % 3,75 izatera pasada, 2020ko urtarrilaren 1etik 2022ko urtarrilaren 1era. Areagotze hori **kultura**-jardueren ondoriozkoa da (% 2,30, 0,07); izan ere, **sormen**-jardueren pisua ez da aldatu (% 1,46).

Kultura eta **sormen** industrietan enpleguaren eboluzioa ez da orekatua izan. **Kultura** enpresen kasuan, aztertutako aldian % 1,83 egin du gora, eta, **sormenaren arloko enpresen** kasuan, berriz, 144 lanpostu galdu dira (-% 1,07). Hau da, **sormenaren arloko enpresen** kasuan ez da pandemiaren aurreko enplegu maila berreskuratu.

Kultura industrien kasuan, gorakada **Ikus-entzunezkoen eta multimedien** arloko jardueren hazkundearen ondoriozkoa da. Hala ere, **Arte eszenikoen** eta **Liburuen eta prentsaren** enpresen kasuan, 169 lanpostu eta 163 lanpostu galdu dira, hurrenez hurren.

Sormen-industrien kasuan enpleguaren beherakada % 1,07koa izan da. Beherakada hori, nagusiki, Arkitekturaren eta hizkuntzaren industrietako eboluzio negatiboaren ondoriozkoa da, enpresa-demografiaren analisisian ikusitakoarekin bat.

Hona hemen aztertutako aldian antzemandako enpleguaren eboluzioa, jarduera-ildoan arabera: **Edizioa, ikus-entzunezkoak, irratia, telebista eta informatika** jarduera-ildoan nabaritu da hazkunde

nabarmena ehunekotan 2020ko urtarriletik (625 lanpostu, % 7,66). Jarraian, **dibertimendu- eta kultura-jardueren** arloa dago; horretan, 202 lanpostu berri sortu dira (% 0,62). Gainerako jardueraildoek (**merkataritza-jarduerak, manufaktura-jarduerak, jarduera profesionalak, jarduera zientifiko eta teknikoak eta hezkuntza-jarduerak**) behera egin dute.

2020ko urtarrilean Euskadin 16.886 enpresa zeuden sektorean. Bi urte geroago kopuruak gora egin du eta orain 16.924 enpresa daude (% 0,2ko gorakada). 2021. urtean zehar, sektoreak % 1,7 egin du gora.

IKSen sektorearen eboluzioa heterogeneoa izan da enpleguarekin bat datozen eremuetan. Alde batetik, **kulturaren arloko enpresek** % 2,3 egin dute gora aztertutako aldian, eta, hortaz, 165 enpresa berri sortu dira. Bestalde, **sormenaren arloko enpresen** kasuan, aldi berean, % 1,3 egin dute behera, 127 enpresa desagertu baitira. Hortaz, **sormenaren** esparruaren kasuan oraindik ez dira pandemiaren aurreko kopurura iritsi.

Arkitektura eta Liburuaren eta prentsa eremuen eboluzioa negatiboa izan da aztertutako aldian. **Arkitekturaren** kasuan, enpresa-kopuruak % 5,6 egin du behera, eta **Liburuak eta prentsaren** kasuan, % 5,1. Murrizketa egon da bai 2020an bai 2021ean. Garrantzitsua da azpimarratzea joera negatibo hori hazkunde ekonomiko orokorreko testuinguruan nabarmendu dela.

Bestalde, **Hizkuntzaren industriaren** eta **Moda-fabrikazioaren** eremuetan enpresa-kopuruak behera egin du, baina kasu hauetan 2021ean zehar hobera egin zuten.

Ikus-entzunezkoak eta multimedia eta **Publizitatearen** eremuetan hazkunde nabarmena hauteman daiteke aztertutako aldian, eta, horri esker, COVID-19ak eragindako krisialditik berreskuratzea sustatu da. Gainera, **Ondarea, museoak, artxiboak eta liburutegiak** eta **Bideo-jokoak** esparruetan enpresa-kopuruak gora egin du.

100.000 biztanleko KSI enpresa-kopuruaren ratioari dagokionez, Nafarroa, Madril, Katalunia eta Estatuaren kopuruaren azpitik dago. Aldea gero eta nabarmenagoa da **kulturaren** arloko enpresen kasuan. **Sormen**-enpresen kasuan, Euskadiko ratioa estatu osokoa baino altuagoa da, baina Nafarroa, Madril edo Kataluniaren azpitik dago.

Enpresa guztien artean IKS enpresen kopurua aztertzen badugu, orokorrean, Nafarroa (% 10,8) eta Estatuaren (% 10,5) gainetik dago Euskadi (% 11), baina Madril (% 13,5) eta Kataluniaren (% 11,3) azpitik.

Datuak aztertu ondoren, ondorioztatu dezakegu berreskurapena desberdina izan dela hiru lurralde historikoetan. Gipuzkoan eta Araban egin du gora enpresa-kopuruak aztertutako aldian. Bizkaian, berriz, 2021. urtearekin alderatuta % 0,7 gora egin du, baina ez da pandemia aurreko KSI enpresa-kopurura iritsi.

Aurretik egindako txostenetan, argi eta garbi ikus zitekeen nortasun juridikoaren arabeko KSI enpresen banaketa, eta aldaketa txiki batzuk salbu, berdin mantentzen da egungo txostenean. Autonomoak (% 68,94) dira Euskal Autonomia Erkidegoan KSI sektoreko figura juridiko nagusia. Jarraian sozietate mugatuak (% 20,28) eta beste sozietate batzuk (% 5,12) daude, elkarte eta fundazioak barne.

Eskuragai dauden datuen arabera¹, identifikatu diren kultura- eta sormen-produktu eta -zerbitzuen eskariaren balio totala 7.397 milioi eurokoa da. Kopuru horretatik, % 40,1 bitarteko eskarira bideratuta dago; hau da, beste sektore produktibo batzuetara. Gainerako % 59,9a, berriz, bukaerako eskariari dagokio. Oro har, KSI produktu eta zerbitzuen produkzioaren % 24, gutxi gorabehera, esportazioari dagokio. Azpimarratu beharrekoa da administrazio publikoaren sektorea bitarteko eskari gehien sortzen duten 10 sektore nagusien artean dagoela aztertu diren 12 produktu edo zerbitzuetako 10etan.

Hortaz, esan daiteke **kultura- eta sormen-industrietan** sendotu egin dela pandemiak eragindako krisiaren ondorengo berreskurapena. Egiaztatu da **Arkitektura** eta **Liburuak eta prentsa** arloetan joera desberdina dela joera orokorrarekin alderatuta. Baliteke joera hori sektorean egondako eta sakon aztertu beharreko egiturazko aldaketen ondorioz sortu izana. Aipatu behar dugu **liburuak eta prentsa** sektorean, Euskadin egoitza duten enpresetan ez bezala, Euskaditik kanpo egoitza duten enpresen kopuruak gora egin duela (18) aztertutako bi urteetan.

Azpimarratzekoa da pandemia aurretiko posizioak hobetu dituzten KSI jarduera bakarrak informazioaren eta komunikazioaren teknologiaren esparrukoak direla; hau da, **argitalpenak, ikus-entzunezkoak, irratia, telebista eta informatikaren arlokoak** (enpleguan % 7,66 egin dute gora). Datu horrek agerian uzten du arlo bakoitzerako beharrezko egokitzapenak egin ondoren, KSIak digitalizazio orokorrera eramateak ekar ditzakeen aukerak, bai eta ez egiteak ekar ditzakeen arriskuak ere.

1 Datuak 2020ko EAeko (mila euro) helmugako tauletatik atera dira, produktu, jatorri geografiko, ildo eta aldiaren arabera. Egilea: Eustat. Eskuragarri dagoen xehetasun-mailaren ondorioz, KSIarekin zuzenean lotuta ez dauden produktu eta zerbitzuak ere sartu dira. Halaber, xehetasun-maila handiagoa izango balitz barne egongo liritekeen produktu eta zerbitzu batzuk ez dira kontuan hartu.

1. | AURKEZPENA

2021eko otsailaren 23an Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak onetsi egin zuen Euskadi 2030 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Plana (ZTBP 2030). Planaren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoa berrikuntzan aurreratuen dauden Europako eskualdeen artean kokatzea, bizi-maila eta enpleguaren kalitate handiarekin. Plan horretan (Eusko Jaurlaritza, 2021) Kultura eta Sormen Industria (aurrerantzean, KSI) apustu garbia da. Bertan, **Euskadi Sortzailea** aukera-esparrutzat hartzen da, eta I+G+b-aren eta kontzeptu hori egokitzearen garrantzia azpimarratzen da, sektorean aplikatzeko zehaztasunak direla-eta. Halaber, KSlen zeharkako zeregina azpimarratzen da, hiru trantsizio nagusietan aurrera egiteko: teknologiko-digitala, energetiko-ingurumenekoa eta soziala-sanitarioa. Aipatutako dokumentuaren arabera, helburua Basque District of Culture and Creativity sortzeko eboluzionatzea da. Bertan, KSIak sartu eta euren tokia aurkituko dute, euskal enpresaren sektorearen eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistemaren barruan.

Gainerako ekonomiarekin gertatu bezala, 2020an COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioz sortutako krisiak eragin handia izan zuen KSletan. 2020ko martxoaren 14an, Estatu osoan alarma-egoera abian jarri zen. Horren ondorioz, pertsonen mugikortasuna mugatzeko neurriak abian jarri ziren, eta horrek eragina izan zuen jarduera ekonomiko zein sozialetan (martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua). Horren ondorioz, hainbat jarduera bertan behera gelditu ziren: museoak, ARTXIBOak, liburutegiak eta monumentuak, ikuskizun publikoak, auditorioak, zinemak, kirolari eta aisiari lotutako jarduerak, jaiak, desfileak eta jai herrikoiak, besteak beste.

Bestalde, KSlei lotutako jarduera batzuk oinarritzotzat jo ziren martxoaren 29ko 10/2020 Errege Lege Dekretuan. Jarduera horien artean telekomunikazioen eta ikus-entzunezkoen enpresak edo itzultzaile eta interpreteak zeuden. 2020. urtean zehar sektoreari lotutako hainbat laguntza sortu ziren, KSlen enpresa-ehunean pandemiaren eragina arintzeko asmoz, Retegi et al.-en (2022b) jasota dagoen moduan. Dokumentu horretan pandemiaren lehen urteak KSlen sektorean izan zituen eraginak baloratu ziren.

Hala ere, KSlen parte ziren enpresen kopuruak behera (% 1,45) egin zuen 2020an, 16.886tik 16.641ra; hots, 243 enpresa gutxiago. Halaber, jarduera horiei lotutako enplegua 33.982tik 33.419ra jaitsi zen,

eta, hortaz, % 1,66 egin zuen behera (563 lanpostu). Hain zuzen, kulturaren sektorean fakturazioak % 29 behera egingo zuela aurreikusi zen, eta, sormenaren sektorean, berriz, % 32. 2020. urtea kolpe latza izan zen sektorearentzat; euskal enpresa guztiena baino pixka bat altuagoa izan zen.

Krisiaren efektua desberdina izan zen KSlen eremuen artean (Bhowmik et al. 2021). Khlystova et al.-en (2022) arabera, KSlek krisiaren aurrean ez dute erresilientzia nahikoa erakutsi. Krisia bereziki gogorra izan da autonomoentzat eta lanaldi partzialeko langileentzat, honako arlo hauetan izan ezik: Publizitatea, giza baliabideak, informazioaren eta komunikazioaren teknologia eta softwarearen industria. Hortaz, museoen eta liburutegien esparruan, besteak beste, ez dira gai izan teknologia digitalek produktuak linean eskaintzeko ematen duten aukera aprobetxatzeko.

Unescok (2021) krisiak kulturaren eta sormenaren eremuko profesionaletan izan duen eragin handia azpimarratu du, askotan oso prekariora izaten baita. Gainera, txosten horretan ondorioztatzen da pandemiak eragin handia izan duela ekoizpen digitaleko, banaketako eta kontsumoko formatu berritzaileak sortzerakoan.

Retegi et al.-en (2022b) arabera, Euskadiko **sormen-jardueretan** nabaritu zen jaitsiera gehien (% 2,11), **Hizkuntzaren industriaren** eta **Arkitekturaren** arloko enpresen murrizketaren ondorioz. Bestalde, **Diseinu** eta **Publizitatearen** arloko jardueren esparruan sortu ziren enpresa gehien pandemia garaian.

Kultura-jardueren kasuan, % 1,81 egin zuten behera, **Liburuak eta prentsa** eta **Ondarea, museoak, artxiboak eta liburutegiak** arloko enpresen murrizketaren ondorioz. Hala ere, **Ikus-entzunezkoak eta multimedia** arloko eremuan enpresa-kopuruak gora egin zuen.

Zorionez, 2021. urtea hasi zenetik, txertaketa orokortu eta pixkanaka-pixkanaka taldeko jarduerak martxan jarri dira berriro ere, eta horri esker KSlak erritmo normala berreskuratzen hasi dira. 2020. eta 2021. urteetan zehar, 2022. urtera arte (orduan 5/2022 Dekretuak **Euskadiko larrialdi sanitarioko egoera** eten zuen), pandemia-boladek eta horiei aurre egiteko neurriek jarduera ekonomiko orokorrak modulatu zituzten, eta, bereziki, sormen- eta kultura-jarduerak. Gaur egun esan dezakegu **kultura-** eta **sormen-jarduerak** garatzeko aukerak pandemiaren aurretik zeuden aukeren antzekoak direla.

Pandemiaren krisiaren aurretik KSI jarduerak makrojoeretan murgilduta zeuden. Makrojoera horiek gizarte osoan zuten eragina, eta, hortik aurrera, joera horietan sartzeko beharra areagotu da. Joera horiek eraldaketa teknologiko-digitala, energetiko-klimatiko eta soziala eta sanitarioa dira, eta herrialde, negozio, industria, gizarte eta pertsonen etorkizuna aldatzeko gai dira (Orkestra, 2021).

Dokumentu honen **xedea** honako hau da: alde batetik, 2022ko urtarrilaren 1ean **KSlek Euskadin duten jarduera ekonomikoaren egoera ebaluatzea** eta pandemiaren aurreko egoerarekin alderatzea, sektorearen berreskurapena neurtzeko. Horretarako, Retegi et al.-en (2022a) zehaztutako perimetroa eta sailkapena erabili dira. Horren arabera, jarduerak kultura eta sormenaren arloko balio-kateen eta ildoaren (manufaktura, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak, hezkuntza, etab.) arabera sailkatzen dira. Bestalde, **bigarren helburua da kultura- eta sormen-produktuak eta -zerbitzuak bideratzen diren sektore nagusien identifikazioa aztertzea.**

Ondorioetan KSlek ekonomian euren zeregina zehazteko eta garatzeko abiapuntua zehazten da, jarduera ekonomikoaren eta beste sektore batzuen garapenaren bidez.

Dokumentuaren hasieran, Euskadiko KSlen enpresa-demografiaren bilakaera aztertzen da, enpresa-kopuruari, euskal ekonomian duten ordezkartzari eta 100.000 biztanleko ratioari erreparatuz. Jarraian, sektorea lurralde-historikoetan nola banatuta dagoen aztertzen da, enpresen forma juridikoaren arabera. Ondoren, enpleguaren eboluzioa aztertzen da, sektoreko enpresei dagozkien KSlen eta jarduera-ildoen arabera. Halaber, KSlen jardueri lotutako produktuen helmuga ere aztertzen da. Bukatzeko, lortutako datuetatik eratorritako ondorio nagusiak ateratzen dira.

2.

KSIen SEKTOREKO ENPRESA- DEMOGRAFIA

Retegi et al.-en (2022b) aztertu daitekeen bezala, COVID-19ak eragindako pandemia oso gogorra izan zen Euskadin KSlen sektorearentzako. KSI enpresen kopurua % 1,45 murriztu zen 2020an, 16.886tik 16.643ra; hots, 243 enpresa gutxiago zeuden. 100.000 biztanleko enpresen ratioa 767,7tik 758,8ra murriztu zen, eta, hortaz, % 1,16 jaitsi zen.

Konfinamendu osoaren ondoren kultura- eta sormen-jarduerak erabat gelditu baziren ere, pixkanaka berreskuratzen hasi ziren, eta aurreko urteko mailara iritsi ez baziren ere, inpaktu ekonomikoa arintzea lortu zuten.

Azterlan honetan aurkezten diren datuei esker, 2021. urteko berreskurapenaren irismena azter dezakegu, eta, horri esker, aldagai desberdinen bidez, KS-lak pandemiaren aurreko jarduera-mailara iritsi ote ziren egiaztatuko dugu.

2.1 taula. taulan, EAEn KSI sektoreak izandako bilakaera ikus daiteke, 2020ko urtarrilaren 1etik 2022ko urtarrilaren 1era. Zehazki, honako hauek hartzen dira kontuan: EAEn zeuden eta egoitza EAEn edo kanpoan zeukaten enpresa-kopurua, 100.000 biztanleko KSI enpresa-kopuruaren ratioa eta enpresen ehunekoaren ratioa, EAeko enpresen guztizko kopuruarekin alderatuta.

Orokorrean, eta analisia egiteko, Euskadiko **KSI enpresa-kopurua** pandemia aurreko mailara iritsi da. 2020ko urtarrilaren 1ean Euskadin 16.886 enpresa zeuden; bi urte geroago, berriz, 16.924 enpresa zeuden, % 0,2 gehiago. Bilakaera aztertzen badugu 2021eko urtarrilaren 1arekin alderatuta, igoera % 1,7koa da.

Hala ere, bilakaera ez da berdina izan KSlen arlo desberdinetan. Hortaz, **kulturaren arloko enpresek** % 2,3 egin dute gora 2020ko urtarrilaren 1arekin alderatuta (165 enpresa); **sormenaren arloko enpresen** kasuan, berriz, 127 enpresa desagertu dira (-% 1,3) aldi berean, eta, hortaz, ez dira pandemiaren aurreko egoerara itzuli.

Bilakaera negatiboa izan duten eremuak honako hauek dira:

Arkitektura: 2020ko hasierarekin alderatuta 174 enpresa gutxiago (-% 5,6) daude. Aipatu behar dugu 2021ean ez dela berreskurapenik antzeman; are gehiago, aurreko urtean antzemandako enpresen beherakadak jarraitu du.

Liburuak eta prentsa eremuan antzeko egoera antzeman dugu. Eremu horretara esleitutako enpresa-kopurua txikiagoa da 2022ko hasieran 2020ko hasieran baino, eta 2021eko hasieran baino. Hortaz, 1.771 enpresa izatetik 1.681 enpresa (90 enpresa) izatera pasa dira; hots, % 5,1eko beherakada.

2.1 TAULA. KSI ENPRESEN BILAKAERA EAEN (2020/01/01 - 2022/01/01)

	Enpresa kopurua 2020.1.1	Enpresa kopurua 2021.1.1	Enpresa kopurua 2022.1.1	Aldakuntza enpresa kopuruan 2022 vs. 2020	Aldakuntza enpresa kopuruan (%). 2022 vs. 2020	Aldakuntza enpresa kopuruan (%). 2022 vs. 2021	Enpresa kopurua /100.000 bizt. (2020)	Enpresa kopurua /100.000 bizt. (2021)	Enpresa kopurua /100.000 bizt. (2022)	Aldakuntza enpresa kopuruan/100.000 bizt. (%). 2022 vs. 2020	Enpresa kopurua / Euskadiko enpresa guztiak (2020)	Enpresa kopurua / Euskadiko enpresa guztiak (2021)	Enpresa kopurua / Euskadiko enpresa guztiak (2022)	Aldakuntza enpresa kopuruan/ EAEko enpresa guztiak (p.p.) (2022 vs. 2020)
1. KULTURA	7.149	7.109	7.314	165	% 2,9	% 2,3	325,0	324,1	334,5	% 2,9	% 4,6	% 4,7	% 4,8	0,20
ARTE ESZENIKOAK	1.414	1.398	1.441	27	% 3,1	% 1,9	64,3	63,7	65,9	% 2,5	% 0,9	% 0,9	% 1,0	0,04
1.- PROPIOA	833	848	888	55	% 4,7	% 6,6	37,9	38,7	40,6	% 7,2	% 0,5	% 0,6	% 0,6	0,05
2.- OSAGARRIA	581	550	553	-28	% 0,5	-% 4,8	26,4	25,1	25,3	-% 4,2	% 0,4	% 0,4	% 0,4	-0,01
IKUSIZKO ARTEAK	1.421	1.426	1.506	85	% 5,6	% 6,0	64,6	65,0	68,9	% 6,6	% 0,9	% 0,9	% 1,0	0,07
1.- PROPIOA	1.421	1.426	1.506	85	% 5,6	% 6,0	64,6	65,0	68,9	% 6,6	% 0,9	% 0,9	% 1,0	0,07
IKUS-ENTZUNEZKOAK ETA MULTIMEDIA	1.513	1.540	1.606	93	% 4,3	% 6,1	68,8	70,2	73,5	% 6,8	% 1,0	% 1,0	% 1,1	0,08
1.- PROPIA	641	639	666	25	% 4,2	% 3,9	29,1	29,1	30,5	% 4,5	% 0,4	% 0,4	% 0,4	0,02
2.- AUXILIAR	872	901	940	68	% 4,3	% 7,8	39,6	41,1	43,0	% 8,4	% 0,6	% 0,6	% 0,6	0,06
LIBURUA ETA PRENTSA	1.771	1.714	1.681	-90	-% 1,9	-% 5,1	80,5	78,2	76,9	-% 4,5	% 1,2	% 1,1	% 1,1	-0,04
1.- PROPIOA	1.010	969	943	-67	-% 2,7	-% 6,6	45,9	44,2	43,1	-% 6,1	% 0,7	% 0,6	% 0,6	-0,03
2.- OSAGARRIA	761	745	738	-23	-% 0,9	-% 3,0	34,6	34,0	33,8	-% 2,4	% 0,5	% 0,5	% 0,5	-0,01
MUSIKA	592	603	626	34	% 3,8	% 5,7	26,9	27,5	28,6	% 6,4	% 0,4	% 0,4	% 0,4	0,03
1.- PROPIOA	546	556	575	29	% 3,4	% 5,3	24,8	25,4	26,3	% 5,9	% 0,4	% 0,4	% 0,4	0,03
2.- OSAGARRIA	46	47	51	5	% 8,5	% 10,9	2,1	2,1	2,3	% 11,5	% 0,0	% 0,0	% 0,0	0,00
ONDAREA, MUSEOAK, ARTXIBOAK ETA LIBURUTEGIAK	438	428	454	16	% 6,1	% 3,7	19,9	19,5	20,8	% 4,3	% 0,3	% 0,3	% 0,3	0,02
1.- PROPIOA	118	121	129	11	% 6,6	% 9,3	5,4	5,5	5,9	% 10,0	% 0,1	% 0,1	% 0,1	0,01
2.- OSAGARRIA	320	307	325	5	% 5,9	% 1,6	14,5	14,0	14,9	% 2,2	% 0,2	% 0,2	% 0,2	0,01

	Enpresa kopurua 2020.1.1	Enpresa kopurua 2021.1.1	Enpresa kopurua 2022.1.1	Aldakuntza enpresa kopuruan 2022 vs. 2020	Aldakuntza enpresa kopuruan (%) . 2022 vs. 2020	Aldakuntza enpresa kopuruan (%) . 2022 vs. 2021	Enpresa kopurua /100.000 bizt. (2020)	Enpresa kopurua /100.000 bizt. (2021)	Enpresa kopurua /100.000 bizt. (2022)	Aldakuntza enpresa kopuruan/100,000 bizt. (%) . 2022 vs. 2020	Enpresa kopurua / Euskadiko enpresa guztiak (2020)	Enpresa kopurua / Euskadiko enpresa guztiak (2021)	Enpresa kopurua / Euskadiko enpresa guztiak (2022)	Aldakuntza enpresa kopuruan/ EAEko enpresa guztiak (p.p.) (2022 vs. 2020)
2. SORMENA	9.737	9.534	9.610	-127	% 0,8	-% 1,3	442,6	434,7	439,5	-% 0,7	% 6,3	% 6,2	% 6,4	0,04
ARKITEKTURA	3.113	3.028	2.939	-174	-% 2,9	-% 5,6	141,5	138,1	134,4	-% 5,0	% 2,0	% 2,0	% 1,9	-0,08
1.- PROPIOA	3.113	3.028	2.939	-174	-% 2,9	-% 5,6	141,5	138,1	134,4	-% 5,0	% 2,0	% 2,0	% 1,9	-0,08
DISEINUA	790	801	836	46	% 4,4	% 5,8	35,9	36,5	38,2	% 6,5	% 0,5	% 0,5	% 0,6	0,04
1.- PROPIOA	790	801	836	46	% 4,4	% 5,8	35,9	36,5	38,2	% 6,5	% 0,5	% 0,5	% 0,6	0,04
HIZKUNTZAREN INDUSTRIAK	4.141	4.020	4.082	-59	% 1,5	-% 1,4	188,3	183,3	186,7	-% 0,8	% 2,7	% 2,6	% 2,7	0,01
1.- PROPIOA	4.141	4.020	4.082	-59	% 1,5	-% 1,4	188,3	183,3	186,7	-% 0,8	% 2,7	% 2,6	% 2,7	0,01
MODA-FABRIKAZIOA	537	518	533	-4	% 2,9	-% 0,7	24,4	23,6	24,4	-% 0,1	% 0,3	% 0,3	% 0,4	0,00
1.- PROPIOA	537	518	533	-4	% 2,9	-% 0,7	24,4	23,6	24,4	-% 0,1	% 0,3	% 0,3	% 0,4	0,00
PUBLIZITATEA	1.147	1.157	1.207	60	% 4,3	% 5,2	52,1	52,8	55,2	% 5,9	% 0,7	% 0,8	% 0,8	0,05
1.- PROPIOA	1.107	1.115	1.169	62	% 4,8	% 5,6	50,3	50,8	53,5	% 6,2	% 0,7	% 0,7	% 0,8	0,05
2.- OSAGARRIA	40	42	38	-2	-% 9,5	-% 5,0	1,8	1,9	1,7	-% 4,4	% 0,0	% 0,0	% 0,0	0,00
BIDEO-JOKOAK	9	10	13	4	% 30,0	% 44,4	0,4	0,5	0,6	% 45,3	% 0,0	% 0,0	% 0,0	0,00
1.- PROPIOA	9	10	13	4	% 30,0	% 44,4	0,4	0,5	0,6	% 45,3	% 0,0	% 0,0	% 0,0	0,00
GUZTIRA	16.886	16.643	16.924	38	% 1,7	% 0,2	767,6	758,8	774,0	% 0,8	% 11,0	% 10,9	% 11,2	0,23

Iturria: autoreak berak egin du, DIRAEren datuetan oinarrituz.

Aipatutako bi bilakaera horiek hazkunde ekonomiko orokorreko testuinguruan gertatu direla kontuan hartuta, pentsa genezake azpian egiturazko kausak daudela.

Halaber, azpimarratu behar dugu hizkuntzaren industrian aztertutako aldian 59 enpresa desagertu direla (-% 1,4). Hala ere, 2021. urtean zehar 2020. urtean galdutako enpresa batzuk berreskuratu dira.

Hazkunde eta berreskurapen nabarmenena bizi izan duten eremuak hauek izan dira:

Ikusizko arteak eta **Ikus-entzunezkoak eta multimedia** eremuak berreskurapen nabarmena izan dute 2021.urtean zehar. Urte horretan % 5,6 eta % 4,3 hazi dira; hots, 80 eta 66 enpresa gehiago, hurrenez hurren. Datu horiek COVID-19 krisialdiaren berreskurapena sustatu dute. **Ikusizko arteak** arloan % 6,0 enpresa gehiago dira 2020ko urtarrilaren 1ean baino, eta **Ikus-entzunezkoak eta multimedia** arloari dagokionez, % 6,1 gehiago. **Musikaren** arloan, berriz, % 5,7 egin dute gora.

Bestalde, sormen-industrien kasuan, pandemia hasi zenetik **Publizitatearen** arloan 60 enpresa gehiago daude (% 5,2) eta **Diseinuaren** arloan, berriz, 46 enpresa gehiago (% 5,8).

Orokorrean enpresa-kopurua handia ez bada ere, **Bideo-jokeen** eremuan bilakaera nabarmena izan da, % 44,4koa, 9 enpresa izatetik 13 enpresa izatera.

Gainerako eremuetako enpresen kopuruari dagokionez, aztertutako urteetan, **Arte eszenikoek** % 1,9 egin dute gora; **Ondarea, museoak, artxiboak eta liburutegiak**, berriz, % 3,7; eta **Modaren fabrikazioak** % 0,7 egin du behera, 2021 urtean % 2,9 murriztu ondoren.

Aipatutako bilakaera hori **Euskadin** 100.000 biztanleko enpresen kopuruan antzeman daiteke. Biztanle kopuruak % 0,6 egin du behera bi urtetan; hortaz, KSI enpresen 100.000 biztanleko ratioak % 0,8 egin du gora, 767,6 izatetik 774 izatera.

KSI enpresen ehunekoa **Euskadiko** enpresen kopuru osoarekin alderatuta, 2020ko urtarrilaren 1ean % 11,0 izatetik 2022ko hasieran % 11,2 izatera pasa da. Hortaz, Retegi et al.-en (2022b) aipatzen den bezala, KSIn sektorean krisiak izan duen eragina Euskadiko gainerako enpresetan baino ahulagoa izan da.

3.

BESTE EREMU GEOGRAFIKO BATZUEKIKO ANALISI KONPARATIBOA

Atal honetan enpresa-demografiaren² alderaketa egiten da, Euskadiko eta beste autonomia-erkidegoetako eta Estatuko kultura eta sormenaren arloko enpresen artean. Zehazki, 100.000 biztanleko KSI enpresen ratioa eta enpresen kopuru osoko KSI enpresen ehunekoa alderatzen dira.

100.000 biztanleko KSI enpresa-kopuruaren ratioari dagokionez, Nafarroa, Madril, Katalunia eta Estatuko kopuruaren azpitik dago. Aldea esanguratsua da **kultura**-arloko enpresen kasuan. Bertan, Euskadi gainerako autonomia-erkidegoen azpitik dago. Madril, Katalunia edo Estatu mailako kopuruekin alderatuta, honako eremu hauetan aldea esanguratsua da: **Liburua eta prentsa, Ikusizko arteak edo Ondarea, museoak, artxiboak eta liburutegiak**.

Bestalde, **Musikaren** eremuan, Euskadiko datuak mesedegarriak dira gainerako eremuetako datuekin alderatuta. Hortaz, Euskadin 100.000 biztanleko 24 enpresa daude **Musikaren** eremuan. Nafarroa, Katalunia, Madril eta Espainiaren kasuan, 10, 10, 12 eta 9 enpresa dauden 100.000 biztanleko, hurrenez hurren.

Kultura-arloko enpresei dagokienez, Euskadiko datuen aldea antzekoa da, 2020ko datuekin alderatuta. Hala ere, 100.000 biztanleko enpresen hazkundearen erritmoa Madrilgoa, Kataluniakoa

² Datuen iturriaren arabera aldea dago demografia-datuaren artean. Hortaz, Euskadiko eta gainerako eremu geografikoen arteko alderaketa egiteko datuak iturri beretik hartu dira; kasu honetan, iturria Espainiako Estatistika Institutua da.

edo Estatukoa baino handiagoa da (+% 0,03). Nafarroan nabaritzen da hazkunde-erritmo positiboena (+% 0,06).

Sormen-enpresen kasuan, Euskadiko ratioa estatu osokoa baino altuagoa da, baina Nafarroa, Madril edo Kataluniaren azpitik dago. Estatuarekin alderatuta, Euskadin enpresa gehiago daude 100.000 biztanleko honako eremu hauetan: **Arkitektura** (+ 27 enpresa); **Diseinua** (+ 12 enpresa) eta **Bideo-jokoak** (+ 1 enpresa). Bestalde, enpresa gutxiago daude eremu hauetan: **Hizkuntzaren industriak** (- 13 enpresa), **Modaren fabrikazioa** (- 12 enpresa) edo **Publizitatea** (- 13 enpresa).

3.1 TAULA. KSI ENPRESEN ALDERAKETA, 100.000 BIZTANLEKO

Enpresak / 100.000 bizt.	2022					Aldakuntza enpresa kopuruan 2022 vs. 2020 (%)				
	Euskadi	Nafarroa	Katalunia	Madrid	España	Euskadi (%)	Nafarroa (%)	Katalunia (%)	Madrid (%)	España (%)
1. KULTURA	318	332	444	547	363	0,03	0,06	0,02	0,02	0,02
ARTE ESZENIKOAK	62	84	74	94	72	0,05	0,03	-0,04	-0,01	-0,02
IKUSIZKO ARTEAK	69	68	108	128	86	0,09	0,09	0,00	-0,01	0,01
IKUS-ENTZUNEZKOAK ETA MULTIMEDIA	67	53	75	106	56	0,08	0,13	0,11	0,07	0,10
LIBURUA ETA PRENTSA	80	86	141	172	118	-0,05	0,01	0,03	0,01	0,02
MUSIKA	24	10	10	12	9	0,06	0,06	0,10	0,11	0,10
ONDAREA, MUSEOAK, ARTXIBOAK ETA LIBURUTEGIAK	16	29	36	33	24	-0,02	0,08	0,00	0,02	0,01
2, SORMENA	395	410	474	574	394	0,01	0,07	0,02	0,00	0,02
ARKITEKTURA	132	161	118	131	105	-0,02	0,01	-0,03	-0,04	-0,03
DISEINUA	20	12	13	11	8	0,02	0,24	0,13	0,11	0,10
HIZKUNTZAREN INDUSTRIAK	170	167	209	260	183	0,02	0,10	0,01	-0,01	0,03
MODA-FABRIKAZIOA	23	18	46	28	35	0,01	-0,04	-0,02	-0,06	-0,03
PUBLIZITATEA	49	53	88	143	62	0,03	0,22	0,12	0,05	0,10
BIDEO-JOKOAK	1	0	1	1	0	0,19	0,00	0,47	0,19	0,19
GUZTIRA, OROKORREAN	714	743	918	1121	757	0,02	0,07	0,02	0,01	0,02

Iturria: autoreak berak egin du, INEren datuetan oinarrituz.

Aztertu diren azken urteetako hazkundearen erritmoa aztertzen badugu, balioak % 0,01 egin du gora Euskadiko sormen-industrian. Zifra hori Madrileko kopurua baino handiagoa da, baina Nafarroakoa, Kataluniakoa edo Estatukoa baino txikiagoa.

Azken bi urteetan hazkundea negatiboa izan da honako eremu hauetan: **Liburuak eta prentsa** (-% 0,05); **Ondarea, museoak, artxiboak eta liburutegiak** (-% 0,02); eta **Arkitektura** (-% 0,02).

Enpresa guztien artean IKS enpresen kopurua aztertzen badugu, orokorrean, Nafarroa (% 10,8) eta Estatuaren (% 10,5) gainera dago Euskadi (% 11), baina Madril (% 13,5) eta Kataluniaren (% 11,3) azpitik.

Sormen-industria kontuan hartzen badugu soilik, Euskadi Nafarroaren, Kataluniaren eta Espainiaren gainera dago, eta Madriletik -% 0,8ra. Estatuko batez bestekoarekin alderatuta, Euskadik honako industria hauetan du ordezkari gehien: **Arkitektura, Diseinua eta Hizkuntzaren industriak**. Bestalde, ordezkari txikiagoa du honako industria hauetan: **Modaren fabrikazioa** eta **Publizitatea**.

Aipatu behar dugu **Arkitekturaren** eremuaren ordezkari txikiagoa murriztu egin dela aztertutako eremu geografiko guztietan.

3.2 TAULA. KSI ENPRESEN EHUNEKOAREN ALDERAKETA, ENPRESEN TOTALAREKIKO

	KSI enpresen % / enpresak guztira 2022					Aldakuntza enpresa kopuruan 2022 vs. 2020 (%)				
	Euskadi	Nafarroa	Katalunia	Madrid	Espainia	Euskadi (%)	Nafarroa (%)	Katalunia (%)	Madrid (%)	Espainia (%)
1. KULTURA	% 4,9	% 4,8	% 5,5	% 6,6	% 5,0	0,13	0,15	0,09	0,00	0,07
ARTE ESZENIKOAK	% 1,0	% 1,2	% 0,9	% 1,1	% 1,0	0,04	0,00	-0,04	-0,03	-0,03
IKUSIZKO ARTEAK	% 1,1	% 1,0	% 1,3	% 1,6	% 1,2	0,09	0,06	0,00	-0,03	0,01
IKUS-ENTZUNEZKOAK ETA MULTIMEDIA	% 1,0	% 0,8	% 0,9	% 1,3	% 0,8	0,07	0,07	0,08	0,07	0,06
LIBURUA ETA PRENTSA	% 1,2	% 1,3	% 1,7	% 2,1	% 1,6	-0,08	-0,01	0,05	-0,01	0,02
MUSIKA	% 0,4	% 0,1	% 0,1	% 0,1	% 0,1	0,02	0,00	0,01	0,01	0,01
ONDAREA, MUSEOAK, ARTXIBOAK ETA LIBURUTEGIAK	% 0,2	% 0,4	% 0,4	% 0,4	% 0,3	-0,01	0,02	0,00	0,00	0,00
2. SORMENA	% 6,1	% 6,0	% 5,8	% 6,9	% 5,5	0,00	0,27	0,06	-0,13	0,06
ARKITEKTURA	% 2,0	% 2,3	% 1,4	% 1,6	% 1,4	-0,06	-0,03	-0,06	-0,09	-0,06
DISEINUA	% 0,3	% 0,2	% 0,2	% 0,1	% 0,1	0,00	0,03	0,02	0,01	0,01
HIZKUNTZAREN INDUSTRIAK	% 2,6	% 2,4	% 2,6	% 3,1	% 2,5	0,03	0,16	0,01	-0,09	0,05
MODA-FABRIKAZIOA	% 0,4	% 0,3	% 0,6	% 0,3	% 0,5	0,00	-0,02	-0,01	-0,03	-0,02
PUBLIZITATEA	% 0,8	% 0,8	% 1,1	% 1,7	% 0,9	0,02	0,12	0,11	0,06	0,07
BIDEO-JOKOAK	% 0,0	% 0,0	% 0,0	% 0,0	% 0,0	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
GUZTIRA, OROKORREAN	% 11,0	% 10,8	% 11,3	% 13,5	% 10,5	0,14	0,41	0,16	-0,13	0,13

Iturria: autoreak berak egin du, INEren datuetan oinarrituz.

Hala ere, **kulturaren** eremuko industrian, Euskadi Kataluniaren, Madrilen edo Estatuaren azpitik dago, baina Nafarroaren gainetik. Aurretik aipatu bezala, Musikaren eremuan (% 0,4) datuak positiboak dira, aztertutako gainerako erreferentziekin alderatuta, eta hazkundera nabarmena izan da aurreko urteekin alderatuta. Aldea txikiagoa bada ere, **ikus-entzunezkoak eta multimedialak** Euskadin dituen datuak Nafarroakoak, Kataluniakoak eta Estatuakoak baino positiboagoak dira, baina Madrilen baino txikiagoak. **Liburuak eta prentsa** arloak Euskadin duen ordezkartza-maila aztertutako gainerako erreferentziekin alderatuta txikiagoa da.

Oro har, Euskadiko datuak gainerako erreferentziekin alderatuta negatiboak dira **kulturaren** kasuan, baina posizioa berreskuratu du **sormenaren arloko enpresen** kasuan.

4. | KSIak LURRALDE- HISTORIKOETAN

Hurrengo taulan KSI sektore bakoitzeko enpresen banaketaren bilakaera ikusi daiteke, lurralde historikoaren (LH) arabera. Datuak aztertu ondoren, krisitik leheneratzeko portaera desberdina ikus daiteke hiru lurralde historikoetan. **Bizkaiaren** kasuan, 2021arekin alderatuta leheneratu bada ere, ez da iritsi pandemiaren aurretik zituen KSI enpresak izatera, eta 112 enpresa gutxiago daude (% 1,3). Hala ere, **Gipuzkoa** eta **Arabaren** kasuan enpresa-kopuruak gora egin du 2020arekin alderatuta; izan ere, 116 eta 17 enpresa gehiago daude, hurrenez hurren. Halaber, aldi berean, egoitza **Euskaditik** kanpo baina establezimenduak **Euskadin** dituzten enpresa-kopuruak gora egin du eta 18 enpresa daude.

Bizkaiko datuak zehazki aztertu dira, eta beherakada **sormenaren arloko enpresen** murrizketaren ondorio da (- 163 enpresa); bereziki, arlo hauetan: **Arkitektura** (-119 enpresa) eta **Hizkuntzaren industriak** (-52 enpresa). Halaber, **Publizitatearen** sektorean jarduten duten enpresen kopurua murriztu egin da (-19 enpresa). **Diseinuaren** arloko enpresen kasuan, 31 enpresa gehiago daude. **Kulturako** enpresen kasuan, 2020arekin alderatuta 51 enpresa gehiago daude, eta bereziki arlo hauetan hazi da enpresa-kopurua: **Ikusizko arteak** (+49 enpresa), **Ikus-entzunezkoak eta multimedia** (+29 enpresa) eta **Musika** (+17 enpresa). Azpimarratzekoa da **Liburuak eta prentsa** arloko enpresek behera egin dutela (-49 enpresa).

Gipuzkoako enpresen hazkundeari dagokionez, 2020ko urtarrilaren 1arekin alderatuta, **kulturaren** (+89 enpresa) zein **sormenaren** (+27 enpresa) arloan gertatu da. Gehien hazi diren eremuak honako hauek izan dira: **Publizitatea** (+59 enpresa), **Ikus-entzunezkoak eta multimedia** (+45 enpresa), **Ikusizko arteak** (+39 enpresa) eta **Ondarea, museoak, artxiboak eta liburutegiak** (+25 enpresa). Hala ere, **Bizkaian** nabarmendu den joeraren antzera, **Arkitektura** eta **liburuak eta prentsa** arloan 53 enpresa (-% 4,6) eta 40 enpresa (-% 6,2) enpresa gutxiago daude.

Arabaren kasuan, KSI enpresei dagokienez, 17 enpresa sortu ziren bi urteko aldian, eta, hortaz, pandemiaren aurreko maila berreskuratu zen. Hazkunde hori **Ikus-entzunezkoak eta multimedia** (21 enpresa) eta **Publizitatea** (16 enpresa) arloek sustatu zuten. Halaber, **Arte eszenikoak, Musika** eta **Diseinuaren** arloan 8, 7 eta 5 enpresa sortu dira, hurrenez hurren. Hala ere, honako arlo hauetan ez da pandemiaren aurreko maila berreskuratu, enpresa-kopuruari dagokionez: **Liburuak eta prentsa** (-12 enpresa), **Hizkuntzaren industriak** (-11 enpresa), **Ikusizko arteak** (-7 enpresa), **Ondarea, museoak, agiritegiak eta liburutegiak** (-6 enpresa), **Arkitektura** (-4 enpresa) eta **Modaren fabrikazioa** (-1 enpresa).

Egoitza Euskaditik kanpo duten enpresei dagokionez, 18 enpresa berri sortu dira aztertutako bi urteetan. **Liburuak eta prentsa** eremuan sortu dira enpresa gehien (+ 11 enpresa, % 28,2). Joera hori deigarria da egoitza Euskadin duten enpresekin alderatuta.

Azpimarratzekoa da Arkitekturaren eremua ez dela pandemiaren aurreko mailara iritsi hiru lurralde historikoen kasuan.

4.1 TAULA. KSI ENPRESEN EBOLUZIOA LHetan

	Enpresa kopurua 2020.1.1.				Enpresa kopurua 2021.1.1.				Enpresa kopurua 2022.1.1.				Aldakuntza enpresa kopuruan 2022 vs. 2020			
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Gainerako Espainia	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Gainerako Espainia	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Gainerako Espainia	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Gainerako Espainia
1. KULTURA	901	3.574	2.561	113	895	3.546	2.554	114	912	3.625	2.650	127	11	51	89	14
ARTE ESZENIKOAK	183	671	547	13	178	664	541	15	191	678	555	17	8	7	8	4
Iturria: autoreak berak egin du, EUSTATen datuetan oinarrituz.

Eskuragai dauden datuen arabera, kultura eta sormenaren arloko produktu eta zerbitzuen eskari totala 7.397 milioi eurokoa da. Kopuru horretatik, % 40,1 bitarteko eskarira bideratzen da; hau da, beste sektore produktibo batzuetara. Gainerako kopurua, % 59,9, bukaerako eskarira bideratuta dago. Orokorrean, ustiapenera bideratutako KSI produktu eta zerbitzuen produkzioaren ehunekoa balioaren % 24 da.


KSI produktu eta zerbitzuek profil oso desberdina erakusten dute aipatzen den eremuaren arabera. Hortaz, esportaziora bideratutako ehunekoa desberdina da: **elkarteen jardueretara** bideratzen den ehunekoa % 0 da eta **ehun, jantzigintza, larru eta oinetakoetara** bideratzen dena % 72 da. Aurretik

aipaturakoez gain, gehien esportatzen diren produktu eta zerbitzuen artean honako hauek daude: **Arkitektura, ingeniariaritzaren eta entsegu teknikoak, zerbitzu artistikoak eta ikuskizunak, publizitatea eta marketina eta edizioa.** Gutxienez esportatzen direnen artean, honako hauek daude: **elkarrekin jarduerak, zerbitzu kulturalak, kirol-jarduerak eta dibertimendurako jarduerak.**

Bestalde, beste sektore produktibo batzuetara bideratutako produkzioaren ehunekoetan desberdintasunak daude produktu eta zerbitzu desberdinen arabera. **Arte grafikoak eta grabatutako euskarrien, Publizitatea eta marketinaren eta edizioaren** kasuan, % 82,5, % 76,5 eta % 65,0 bideratzen da beste sektore produktibo batzuetara. **Ehun, jantzigintza, larru eta oinetakoak, kirol-jardueren eta dibertimendurako jardueren** sektoreetan % 28 baino gutxiago bideratzen dute beste sektore produktibo batzuetara, eta, hortaz, produkzioaren zati handiena bukaerako eskarira bideratuta dago.

Hurrengo irudian, kultura- eta sormen-produktuen sailkapena ikus daiteke, bitarteko eskarira bideratutako produkzio-mailaren arabera, bukaerako eskarira bideratutakoa kontuan hartuta. Ikus daitekeen bezala, KSI produktuak bukaerako eskaria asetzera bideratuta daude (marra diagonalaren gainean dauden bunbuiloak), beste sektore produktiboetako bitarteko eskaria asetzera baino. Aurretik aipatu dugun bezala, soilik hiru KSI produktu edo zerbitzu daude batez ere bitarteko eskaria asetzera bideratuta.

8.1 IRUDIA. KSI PRODUKTU ETA ZERBITZUEN SAILKAPENA, HELMUGAREN ARABERA (BITARTEKO ETA BUKAERAKO ESKARIA)



Iturria: autoreak berak egin du, EUSTATen datuetan oinarrituz.

Bunbuiloaren eremua bat dator produktuaren edo zerbitzuaren eskari totalarekin, bitarteko eta bukaerako eskaria zenbatuta.

Jarraian, bitarteko jarduera-ildoetako sektoreen helmuga garrantzitsuenak aurkeztuko ditugu, aztertutako KSI produktuen arabera.

8.3 TAULA. KSI PRODUKTU ETA ZERBITZUETAKO BITARTEKO ESKARIRAKO JARDUERA-ILDO OHIKOENEN TOP 10.A

PRODUKTUEN TOP 10 HELMUGAK /KSI ZERBITZUEKIKO	19. Ehun, jantzigintza, larru eta oinetakoak	23. Arte grafikoak eta grabatutako euskarriak	74. Edizioa	75. Ikus-entzunezko zerbitzuak	77. Informatikako eta informazioko zerbitzuak	83. Arkitektura, ingeniariaritz eta entsegu teknikoak
1	53. Lurreko bestelako merkantzia-garraioa	76. Administrazio Publikoa	15. Arte grafikoak eta erreproduzioa	60. Ikus-entzunezkoak, zinea, irratia eta TB	62 .Informatika	68. Arkitektura eta ingeniariaritz zerb.
2	47. Eraikuntza	68. Arkitektura eta ingeniariaritz zerb.	62 . Informatika	50. Txikizkako merkataritza	76. Administrazio Publikoa	47. Eraikuntza
3	58. Ostalaritza	50. Txikizkako merkataritza	67. Jarduera juridikoak eta kontabilitatekoak	47. Eraikuntza	63. Zerb. finantzarioak, aseguruak ezik	43. Energia elektrikoa
4	12. Ehun, jantzigintza, larru eta oinetakoak	59. Edizioa	68. Arkitektura eta ingeniariaritz zerb.	85. Elkarleen jarduerak	49. Handizkako merkataritza	76. Administrazio Publikoa
5	49. Handizkako merkataritza	70. Publizitatea eta merkatu azterlan.	50. Txikizkako merkataritza	67. Jarduera juridikoak eta kontabilitatekoak	68. Arkitektura eta ingeniariaritz zerb.	35. Erabilera orokorreko makinaria
6	76. Administrazio Publikoa	66. Higiezin jarduerak	77. Merkatu hezkuntza	61.Telekomunikazioak	53. Lurreko bestelako merkantzia-garraioa	37. Ibilgailu motordunen fabrikazioa
7	21. Plastikozko produktuak	60. Ikus-entzunezkoak, zinea, irratia eta TB	76. Administrazio Publikoa	70. Publizitatea eta merkatu azterlan.	67. Jarduera juridikoak eta kontabilitatekoak	69. Ikerketa eta garapena
8	87. Bestelako zerbitzu pertsonalak	49. Handizkako merkataritza	63. Zerb. finantzarioak, aseguruak ezik	82. Zerbitzu sozialak, ez merkatukoak	61. Telekomunikazioak	39. Bestelako garraio-materiala
9	84. Kirol- eta dibertimendu-jarduerak	15. Arte grafikoak eta erreproduzioa	43. Energia elektrikoa	58. Ostalaritza	43. Energia elektrikoa	61.Telekomunikazioak
10	33. Material eta ekipo elektrikoa	62 . Informatika	58. Ostalaritza	68. Arkitektura eta ingeniariaritz zerb.	56. Garraioari erantsitako jarduerak	33. Material eta ekipo elektrikoa

PRODUKTUEN TOP 10 HELMUGAK /KSI ZERBITZUEKIKO	85. Publizitatea eta marketina	97. Zerbitzu artistikoak eta ikuskizunak	98. Zerbitzu kulturalak	100. Kirol jarduerak	101. Dibertimendurako jarduerak	102. Elkarteen jarduerak
1	70. Publizitatea eta merkatu azterlan.	76. Administrazio Publikoa	76. Administrazio Publikoa	84. Kirol- eta dibertimendu-jarduerak	84. Kirol- eta dibertimendu-jarduerak	50. Txikizkako merkataritza
2	63. Zerb. finantzarioak, aseguruak ezik	60. Ikus-entzunezkoak, zinea, irratia eta TB	58. Ostalaritza	49. Handizkako merkataritza	49. Handizkako merkataritza	67. Jarduera juridikoak eta kontabilitatekoak
3	76. Administrazio Publikoa	62. Informatika	49. Handizkako merkataritza	76. Administrazio Publikoa	85. Elkarteen jarduerak	63. Zerb. finantzarioak, aseguruak ezik
4	10. Edariak	85. Elkarteen jarduerak	74. Bidai agentziak	10. Edariak	76. Administrazio Publikoa	49. Handizkako merkataritza
5	49. Handizkako merkataritza	58. Ostalaritza	10. Edariak	63. Zerb. finantzarioak, aseguruak izan ezik	67. Jard. juridikoak eta kontabilitatekoak	75. Bestelako jard. Osagarriak
6	50. Txikizkako merkataritza	10. Edariak	84. Kirol- eta dibertimendu-jarduerak	85. Elkarteen jarduerak	74. Bidai agentziak	58. Ostalaritza
7	67. Jarduera juridikoak eta kontabilitatekoak	59. Edizioa	60. Ikus-entzunezkoak, zinea, irratia eta TB	61. Telekomunikazioak	58. Ostalaritza	39. Bestelako garraio-materiala
8	37. Ibilgailu motordunen fabrikazioa	72. Alokairu jarduerak	35. Erabilera orokorreko makinaria	56. Garraioari erantsitako jarduerak	10. Edariak	85. Elkarteen jarduerak
9	58. Ostalaritza	84. Kirol- eta dibertimendu-jarduerak	61. Telekomunikazioak	39. Bestelako garraio-materiala	61. Telekomunikazioak	68. Arkitektura eta ingeniaritza zerb.
10	48. Ibilgailuen salmenta eta konponketa	39. Bestelako garraio-materiala	15. Arte grafikoak eta erreprodukzioa	71. Bestelako jard. profesionalak	56. Garraioari erantsitako jarduerak	25. Burdingintza

Iturria: autoreak berak egin du, EUSTATen datuetan oinarrituz.

Ikus daitekeen bezala, produktu eta zerbitzuen eskari-profila oso anitza da, eta etorkizunean analisi zehatza egin behako litzateke, produktuek helmugako sektoreetan duten eragina eta balio kuantitatibo eta kualitatiboa aztertzeko.

Azpimarratzekoa da administrazio publikoaren sektorea bitarteko eskari handiena duten 10 sektoreen artean dagoela aztertutako 12 produktuetakoa 10etan. Sektore honek eskari handiena du honako arlo hauetan: **arte grafikoak eta grabatutako euskarriak, zerbitzu artistikoak eta ikuskizunak** eta **zerbitzu kulturalak**.

9. | ONDORIOAK

Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal Institutuak egindako azterlan honen helburua da KSI enpresen berreskurapen-gradua ikustea, COVID-19ak eragindako krisi ekonomikoaren eraginak pairatu ondoren. Horretarako, 2022ko urtarrilaren 1ean egoera aztertu eta 2020ko urtarrilaren 1eko egoerarekin alderatu da, enpresa-demografiari eta enpleguari lotutako aldagaiak ebaluatuz. Halaber, kultura- eta sormen-arloko produktu eta zerbitzuak bideratzen diren sektore nagusiak identifikatu nahi ditugu.

Alderaketa-analisi horren bidez, hasteko, kultura eta sormenaren arloko enpresa-kopurua eta euskal ekonomian duten ordezkagarritasuna aztertzeaz gain, 100.000 biztanleko enpresen proportzioa aztertu da. Jarraian, sektoreak lurralde-historikoetan duen banaketa aztertu da, baita enpresen forma juridikoa ere. Halaber, KSlek sortutako enplegua aztertu dugu, eta, horretarako sektoreak barne hartzen dituen eremu eta jarduera-ildo desberdinetan izan duten bilakaera kontuan hartu dugu.

Enpresa-demografiaren ikuspegitik, aztertutako aldian, **Euskadiko KSien sektoreak pandemiaren aurreko enpresen maila berreskuratu du**. 2020ko urtarrilaren 1ean eskualdean 16.886 enpresa zeuden, eta bi urte geroago, berriz, 16.924 enpresa. Hortaz, % 0,2 egin zuen gora. 2021eko urtarrilaren 1arekin alderatuta, sektoreak % 1,7 egin du gora.

KSien sektorearen eboluzioa heterogeneoa izan da aztertutako eremu desberdinetan. Alde batetik, **kulturaren** arloko enpresek % 2,3 egin dute gora 2020ko urtarrilaren 1arekin alderatuta, eta, hortaz, 165 enpresa berri sortu dira. Bestalde, **sormenaren arloko enpresen** kasuan, aldi berean, % 1,3 egin dute behera, 127 enpresa desagertu baitira. Hortaz, **sormenaren** esparruaren kasuan oraindik ez dira pandemiaren aurreko kopurura iritsi.

Arkitektura eta Liburuak eta prentsa eremuen eboluzioa negatiboa izan da aztertutako aldian. **Arkitekturaren** kasuan, enpresak % 5,6 murriztu dira, eta, hortaz, 2020an baino 174 enpresa gutxiago daude. **Liburuak eta prentsaren** kasuan, egoera antzekoa da; enpresek % 5,1 egin dute behera bi urte horietan, eta, hortaz, 1.771 enpresa izatetik 1.681 enpresa izatera pasa dira. Bestalde, **Hizkuntzaren industriak** eremuan enpresa-kopuruak behera egin du.

Garrantzitsua da aipatzea joera hori hazkunde ekonomiko orokorraren testuinguruan nabaritu dela; hortaz, sakon aztertu beharreko egiturazko kausen ondorio izan daitekeela pentsa dezakegu.

Ikus-entzunezkoak eta multimedia eta **Musikaren** eremuetan hazkunde nabarmena hauteman daiteke aztertutako aldian, eta, horri esker, COVID-19-ak eragindako krisialditik berreskuratzea sustatu da. Halaber, **Publizitatearen** eta **Diseinuaren** eremuan enpresa-kopuruak gora egin du. **Bideo-jokeen** arloak ere gora egin du ehunekoei erreparatzen badiegu. Gainerako eremuei dagokienez, **Arte eszenikoak eta Ondarea, museoak, artxiboak eta liburutegiak** eremuek gora egin dute, eta **Modaren fabrikazioaren** eremuak, berriz, behera egin du.

100.000 biztanleko KSI enpresa-kopuruaren ratioari dagokionez, Nafarroa, Madril, Katalunia eta Estatuaren kopuruaren azpitik dago. Aldea esanguratsua da **kultura**-arloko enpresen kasuan. Bertan, Euskadi gainerako autonomia-erkidegoen azpitik dago. Madril, Katalunia edo Estatu mailako kopuruarekin alderatuta, honako eremu hauetan aldea esanguratsua da: **Liburua eta prentsa; Ikusizko arteak; edo Ondarea, museoak, artxiboak eta liburutegiak**. Bestalde, **Musikaren** eremuan, Euskadiko datuak mesedegarriak dira gainerako eremuetako datuekin alderatuta.

Sormen-enpresen kasuan, Euskadiko ratioa estatu osokoa baino altuagoa da, baina Nafarroa, Madril edo Kataluniaren azpitik dago.

Enpresa guztien artean IKS enpresen kopurua aztertzen badugu, orokorrean, Nafarroa (% 10,8) eta Estatuaren (% 10,5) gainetik dago Euskadi (% 11) , baina Madril (% 13,5) eta Kataluniaren (% 11,3) azpitik.

Datuak aztertu ondoren, ondorioztatu dezakegu krisia desberdina izan dela hiru lurralde historikoetan. 2021. urtearekin alderatuta Bizkaia berreskuratu bada ere, oraindik ez da iritsi pandemiaren aurreko KSI enpresen kopurura, eta % 1,3 egin du behera; hots, 112 enpresa galdu dira. Bestalde, Gipuzkoan eta Araban enpresa-kopuruak gora egin du, eta 116 eta 17 sortu dira, hurrenez hurren, 2020ko urtarrilaren 1arekin alderatuta.

Aurretik egindako txostenetan, argi eta garbi ikus zitekeen nortasun juridikoaren arabera KSI enpresen banaketa, eta aldaketa txiki batzuk salbu, berdin mantentzen da egungo txostenean. Autonomoak dira langile ohikoenak Euskadiko KSlen sektorean, eta enpresen guztizko kopuruaren % 68,94 dira (11.668 autonomo). Sozietate mugatuak enpresa guztien % 20,28 hartzen dute (3.432 enpresa), eta beste sozietate batzuek (elkarteak eta fundazioak nagusiki) % 5,12 hartzen dute. Gainerako enpresak honako hauek osatzen dituzte, ordenan: ondasun-erkidegoak, sozietate kooperatiboak, sozietate anonimoak, organismo autonomo erlijiosoak eta tokiko korporazioak.

Enpleguaren ikuspuntutik, aztertutako aldian (2022 vs. 2021) KSletan enpleguak gora egin du, eta 231 lanpostu sortu dira guztira; hots, % 0,68. Azken urtean zehar (2022 vs. 2021) 794 postu berri sortu dira; hots, % 2,3 gehiago.

Kultura- eta **sormen**-arloko industrietan enpleguaren eboluzioa eta enpresa-kopurua ez da orekatua izan. **Kultura**-enpresen kasuan, aztertutako aldian % 1,83 egin du gora, eta, **sormenaren arloko enpresen** kasuan, berriz, 144 lanpostu galdu dira (-% 1,07). Hau da, **sormenaren arloko enpresen** kasuan ez da pandemiaren aurreko enplegu maila berreskuratu.

Horren ondorioz, Euskadin KSI jardueren enpleguaren ehunekoa % 3,69 izatetik % 3,75 izatera pasa da, 2020ko urtarrilaren 1etik 2022ko urtarrilaren 1era. Areagotze hori jarduera **kulturalen** ondoriozkoa da (% 2,30, 0,07 portzentaje-puntu); izan ere, **sormen**-jardueren pisua ez da aldatu (% 1,46).

Kulturaren arloko industriaren kasuan, gorakada **Ikus-entzunezkoak eta multimedia** arloko enpleguaren igoerari dagokio (+ 698 lanpostu), jarduera propioetan eta osagarrietan. Hazkundera % 11,69koa da. Hala ere, **Arte eszenikoen** eta **Liburuen eta prentsaren** arloko enpresen kasuan, 169 lanpostu (-% 4,15) eta 163 lanpostu (-% 2,78) galdu dira, hurrenez hurren.

Enpleguaren bilakaera kulturaren arloko industrietan desorekatua izan da jardueraren arabera. Zehazki, enpleguak gora egin du batez ere **Ikus-entzunezkoak eta multimedia** jardueretan; 698 lanpostu sortu dira (% 11,69), jarduera propio zein osagarrietan. Bestalde, **Arte eszenikoen** eta **Liburuen eta prentsaren** arloko enpresen kasuan, 169 lanpostu (-% 4,15) eta 163 lanpostu (-% 2,78) galdu dira, hurrenez hurren.

Musikaren eremuan 30 lanpostu galdu dira (% 1,89). Sektore horren barruan jarduera propioek behera egin dute (-% 0,40), eta jarduera osagarrien kasuan 24 lanpostu galdu dira (-% 31,17). Murrizketa hori ez dator bat enpresa-kopuruaren gorakadarekin. Hortaz, hori kontuan hartuta, esan dezakegu sektorea berrantolatzen ari dela, eta enpresa txikiagoak izateko joera nabarmentzen da. Aldaketa hori argi ikus dezakegu autonomoen ehunekoak gora egin duelako nabarmen, eremu horretako enpresen % 57,94 izatetik % 61,18 izatera.

Sormen-industrien kasuan enpleguaren beherakada % 1,07koa izan da. Beherakada hori, nagusiki, **Arkitekturaren** eta **Hizkuntzaren industrietako** eboluzio negatiboaren ondoriozkoa da. Gainera, **Modaren fabrikazioan** 68 lanpostu galdu dira 2020. urtea hasi zenetik. Bestalde, **Publizitatea**, **Diseinua** eta **Bideo-jokoak** sektoreetan enpleguaren sorrerak gora egin du.

Hona hemen aztertutako aldian antzemandako enpleguaren eboluzioa, jarduera-ildoen arabera: **edizioa, ikus-entzunezkoak, irratia, telebista eta informatika** jarduera-ildoan nabaritu da hazkunde nabarmenena ehunekotan 2020ko urtarriletik (625 lanpostu). Jarraian, **dibertimendu eta kultura arloko** jardueren arloan 202 lanpostu berri sortu dira.

Gainerako jarduera-ildoek (**merkataritza jarduerak, manufaktura jarduerak, jarduera profesionalak, jarduera zientifiko eta teknikoak eta hezkuntza jarduerak**) behera egin dute enpleguari dagokionez. Joera horietatik ondorioztatu dezakegu KSI enpresentzat garrantzitsua dela trantsizio teknologiko-digitalera egokitzea.

Azterlan honetan euskal ekonomiako kultura- eta sormen-produktuen helmuga aztertu dugu. Eskuragai dauden datuen arabera, kultura- eta sormen-produktu eta -zerbitzuen eskariaren balio totala 7.397 milioi eurokoa da. Kopuru horretatik, % 40,1 bitarteko eskarira bideratuta dago; hau da, beste sektore produktibo batzuetara. Gainerako % 59,9a, berriz, bukaerako eskariari dagokio. Oro har, KSI produktu eta zerbitzuen produkzioaren % 24, gutxi gorabehera, esportazioari dagokio.

KSI produktuak bukaerako eskaria asetzerantz bideratuta daude nagusiki, eta ez horrenbesteko bitarteko eskaria edo beste sektore produktibo batzuetako eskaria asetzerantz. Soilik hiru KSI produktu

edo zerbitzuren xedea da bitarteko eskaria asetzea (**arte grafikoak eta grabatutako euskarriak, publizitatea eta marketina eta edizioa**).

Azpimarratu beharrekoa da administrazio publikoaren sektorea bitarteko eskari gehien sortzen duten 10 sektore nagusien artean dagoela aztertu diren 12 produktu edo zerbitzuetako 10etan. Zehazki, bitarteko sektorerako produktuak eta zerbitzuak eskatzen dira gehien honako arlo hauen kasuan: **arte grafikoak eta grabatutako euskarriak, zerbitzu artistikoak eta ikuskizunak eta zerbitzu kulturalak**. Hortaz, argi ikus dezakegu administrazio publikoak garrantzi handia duela produktu eta zerbitzu horien kontsumoari dagokionez.

Jarraian, honako informazio hau zehaztuko dugu fitxa desberdinetan: dimentsio ekonomikoa, jardueraren berreskurapen-maila KSI eremuen arabera, iruzkin kualitatiboak eta elkartu daitezkeen produktuen helmuga⁶.

9.1 taula. KSIEN BILAKAERAREN LABURPEN-FITXAK, EREMUAREN ARABERA

ARTE ESZENIKOAK					
Aldagai nagusiak	Enplegua (2022.01.01)	Enpresak (2022.01.01)	Enpleguaren bilakaera vs 2020.01.01	Euskadiko enpleguaren %	Lanaren/enpresaren batez besteko tamaina
	3.908	1.441	-% 4,15	% 0,43	2,71
Iruzkina	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Ez dira pandemiaren aurreko mailara iritsi. ◆ Nagusiki, arte eszenikoen jardura osagarriek % 10,33 behera egin dutelako. ◆ Jardura propioek % 3,37 egin dute gora 2020.01.01arekin alderatuta ◆ EAEko enpleguan zuten ordezkagarritasunak behera egin du. ◆ Hala ere, enpresa-kopuruak % 1,9 egin du gora. ◆ Hortaz, krisiaren ondorioz sektorea berregituratu egin da eta enpresak txikiagoak dira, bereziki industria osagarrien kasuan, enpresa bakoitzean 2,88 langile izatetik 2,71 langile izatera pasa baitira. 				
Potentzialki lotuta dauden produktu eta/edo zerbitzuen 5 helmuga nagusiak	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Sormen- eta arte-zerbitzuak <ul style="list-style-type: none"> - Administrazio publikoa - Ikus-entzunezkoak, zinema, irratia eta telebista - Informatika - Elkarten jarduerak - Ostalaritza 				

6 Kultura- eta sormen-eremuen eta lotutako produktuen arteko asoziazioa Eustateko datuak eta JESN 168 eta P105 produktu/zerbitzuen sektoreen arteko datuak gurutzatuta egin da. Analisi zehatzagoa egiteko, beharrezkoa litzateke JESNren sektoreen loturari buruzko datu zehatzak, 4 digitu eta produktuak eta zerbitzuak erabilgarri izatea. Ere mu batzuetan eskuragarri dagoen xehetasun-maila dela eta, ezin dira produktuen helmuga-sektoreak esleitu.

IKUSIZKO ARTEAK

Aldagai nagusiak	Enplegua (2022.01.01)	Enpresak (2022.01.01)	Enpleguaren bilakaera vs 2020.01.01	Euskadiko enpleguaren %	Lanaren/enpresaren batez besteko tamaina
	1.789	1.506	+% 0,96	% 0,20	1,18

Iruzkinak

- ◆ Pandemiaren aurreko mailara iritsi dira.
- ◆ Enpresa-kopurua enplegua baino gehiago hazi da. Hortaz, enpresen batez besteko tamaina murriztu egin da, enpresa bakoitzeko 1,21 langile izatetik 1,18 izatera pasa baitira.
- ◆ Erakunde juridikoen artean autonomo gehien dituen KSI eremua da (% 92,16).

IKUS-ENTZUNEZKOAK ETA MULTIMEDIA

Aldagai nagusiak	Enplegua (2022.01.01)	Enpresak (2022.01.01)	Enpleguaren bilakaera vs 2020.01.01	Euskadiko enpleguaren %	Lanaren/enpresaren batez besteko tamaina
	6.670	1.606	+% 11,69	% 0,73	4,15

Iruzkinak

- ◆ Pandemiaren aurreko enpleguarekin alderatuta, nabarmen egin du gora.
- ◆ Gorakada nagusia enpresa osagarrietan gertatu da, eremuko berezko enpresetan baino gehiago.
- ◆ Enpresen batez besteko tamainak gora egin du, enpresa bakoitzeko 3,94 langile izatetik 4,15 izatera pasa baita.
- ◆ Hedatzen ari den sektorea. Halaber, ordezkagarritasunak % 0,08 egin du gora Euskadiko enpleguaren esparruan.
- ◆ Erakunde juridikoen artean autonomo gutxien dituen eremuetako bat da (% 51,62).

Potentzialki lotuta dauden produktu eta/edo zerbitzuen 5 helmuga nagusiak

- ◆ Ikus-entzunezko zerbitzuak
 - 60. Ikus-entzunezkoak, zinema, irratia eta telebista
 - 50. Txikizkako saltokiak
 - 47. Eraikuntza
 - 85. Elkarleen jarduerak
 - 67. Zuzenbidearekin eta kontabilitatearekin lotutako jarduerak

LIBURUA ETA PRENTSA

Aldagai nagusiak	Enplegua (2022.01.01)	Enpresak (2022.01.01)	Enpleguaren bilakaera vs 2020.01.01	Euskadiko enpleguaren %	Lanaren/enpresaren batez besteko tamaina
	5.690	1.681	-% 2,78	% 0,62	3,38

Iruzkinak

- ◆ Enpleguak behera egin du pandemiaren aurreko kopuruarekin alderatuta.
- ◆ Enpleguak behera egin du bigarren urtez. Joera hori ez dator joera orokorarekin bat, bertan sektorearen egiturazko aldaketa nabarmentzen baita.
- ◆ Enpleguak behera egin du 2021.01.01etik 2022.01.01era.
- ◆ Enpresa-kopuruak ere behera egin du % 5,1.
- ◆ Eragina handiagoa izan da jarduera propioen kasuan.
- ◆ Enpresen batez besteko tamaina 3,94 langile izatetik 3,38 izatera aldatu da.

Potentzialki lotuta dauden produktu eta/edo zerbitzuen 5 helmuga nagusiak

- ◆ Edizioa
 - 15. Arte grafikoak eta erreprodukzioa
 - 62. Informatika
 - 67. Zuzenbidearekin eta kontabilitatearekin lotutako jarduerak
 - 68. Arkitektura- eta ingeniari-tza-zerbitzua
 - 50. Txikizkako saltokiak
- ◆ Arte grafikoak eta grabatutako euskarriak
 - 76. Administrazio publikoa
 - 68. Arkitektura- eta ingeniari-tza-zerbitzua
 - 50. Txikizkako saltokiak
 - 59. Edizioa
 - 70. Publizitatea eta merkatu-azterketak

MUSIKA

Aldagai nagusiak	Enplegua (2022.01.01)	Enpresak (2022.01.01)	Enpleguaren bilakaera vs 2020.01.01	Euskadiko enpleguaren %	Lanaren/enpresaren batez besteko tamaina
	1.569	626	-% 1,89	% 0,17	2,50

- Iruzkinak
- ◆ Sektorea ez da pandemiaren aurreko mailara iritsi.
 - ◆ Beherakada Euskadin antzemandakoaren antzekoa denez, ordezkarritasuna konstante mantendu da (% 0,17)
 - ◆ Hala ere, enpresa-kopuruak gora egin du (% 5,7), eta hortaz, langile kopuruak ere gora egin du, enpresa bakoitzeko 2,7 izatetik 2,5 izatera.
 - ◆ Enplegua jarduera propioetara bideratuta dago.

- Potenzialki lotuta dauden produktu eta/edo zerbitzuen 5 helmuga nagusiak
- ◆ Sormen- eta arte-zerbitzuak
 - Administrazio publikoa
 - Ikus-entzunezkoak, zinema, irratia eta telebista
 - Informatika
 - Elkarleen jarduerak
 - Ostalaritza
 - ◆ Kultura-zerbitzuak
 - 76. Administrazio publikoa
 - 58. Ostalaritza
 - 49. Handizkako merkataritza
 - 74. Bidaia-agentziak
 - 10. Edariak

ONDAREA, MUSEOAK, ARTXIBOAK ETA LIBURUTEGIAK

Aldagai nagusiak	Enplegua (2022.01.01)	Enpresak (2022.01.01)	Enpleguaren bilakaera vs 2020.01.01	Euskadiko enpleguaren %	Lanaren/enpresaren batez besteko tamaina
	1.301	454	+% 1,75	% 0,14	2,86

- Iruzkinak
- ◆ Pandemiaren aurreko mailara iritsi da jarduera propioetan eta osagarrietan.
 - ◆ Enpresa-kopuruak % 3,7 egin du gora; enpleguaren hazkundearekin alderatuta, ondorioztatu dezakegu enpresaren batez besteko tamainak behera egin duela (2,92 langile izatetik 2,86 langile izatera).
 - ◆ Enpresa guztien artean autonomo gutxien dituen eremuetako bat da (% 39,21).

- Potenzialki lotuta dauden produktu eta/edo zerbitzuen 5 helmuga nagusiak
- ◆ Kultura-zerbitzuak
 - 76. Administrazio publikoa
 - 58. Ostalaritza
 - 49. Handizkako merkataritza
 - 74. Bidaia-agentziak
 - 10. Edariak

ARKITEKTURA

Aldagai nagusiak	Enplegua (2022.01.01)	Enpresak (2022.01.01)	Enpleguaren bilakaera vs 2020.01.01	Euskadiko enpleguaren %	Lanaren/enpresaren batez besteko tamaina
	3.894	2.939	-% 2,70	% 0,43	1,32
Iruzkinak	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Arkitekturaren arloa ez da pandemiaren aurreko mailara iritsi. ◆ Euskadiko enpleguaren batez bestekoa baino gehiago murriztu da, eta ordezkagarritasunak % 0,01 egin du behera. ◆ Enpresa-kopuruak ere behera egin du % 5,6. ◆ Autonomoen kopurua eremuko enpresa guztien % 78,90 da. 				
Potentzialki lotuta dauden produktu eta/edo zerbitzuen 5 helmuga nagusiak	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Arkitektura, ingeniariaritz eta entsegu teknikoak <ul style="list-style-type: none"> - 68. Arkitektura- eta ingeniariaritz-zerbitzua - 47. Eraikuntza - 43. Energia elektrikoa - 76. Administrazio publikoa - 35. Erabilera orokorreko makinak 				

DISEINUA

Aldagai nagusiak	Enplegua (2022.01.01)	Enpresak (2022.01.01)	Enpleguaren bilakaera vs 2020.01.01	Euskadiko enpleguaren %	Lanaren/enpresaren batez besteko tamaina
	1.209	836	+% 3,78	% 0,13	1,44
Iruzkinak	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Sektorearen berreskurapen-maila Euskadiko enpleguaren batez bestekoaren gainetik dago. ◆ Enpresa-kopuruak ere % 5,7 egin du behera. ◆ Autonomoen kopurua eremuko enpresa guztien % 78,59 da. 				

HIZKUNTZAREN INDUSTRIA

Aldagai nagusiak	Enplegua (2022.01.01)	Enpresak (2022.01.01)	Enpleguaren bilakaera vs 2020.01.01	Euskadiko enpleguaren %	Lanaren/enpresaren batez besteko tamaina ⁷
	3.191	4.082	-% 4,86	% 0,35	0,78
Iruzkinak	<ul style="list-style-type: none"> ◆ 2020.01.01-2022.01.01 bitartean enplegu gehien galdu duen sektoretako bat da. ◆ Xehetasun handiagoko datuak aztertu beharko genituzke 4 digituko JESNetan dauden azpiarloen eboluzio zehatzaren berri izateko. ◆ Enpresa-kopuruak ere % 1,4 egin du behera. ◆ Autonomoak % 76,16 dira. 				

⁷ Batez besteko enpresako langile-kopurua batetik beherakoa da, langilerik ez duen enpresa asko daudelako. Ez dugu Euskadiri buruzko daturik, baina Estatu mailan 2022an 855 JESNeen 87.631 enpresa zeuden, eta 58.505 enpresek ez zuten langilerik.

MODAREN FABRIKAZIOA

Aldagai nagusiak	Enplegua (2022.01.01)	Enpresak (2022.01.01)	Enpleguaren bilakaera vs 2020.01.01	Euskadiko enpleguaren %	Lanaren/enpresaren batez besteko tamaina
	1.233	533	-% 5,23	% 0,14	2,31
Iruzkinak	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Enpleguak behera egin du bigarren urtez. Joera hori ez dator joera orokorrarekin bat, bertan sektorearen egiturazko aldaketa nabarmentzen baita. ◆ Enpresa-kopuruak % 0,7 egin du behera; hortaz, galdu diren enpresen tamaina batez bestekoa baino handiagoa zen. ◆ Enpresen batez besteko tamainak behera egin du, enpresa bakoitzeko 2,42 langile izatetik 2,31 izatera. 				
Potentzialki lotuta dauden produktu eta/edo zerbitzuen 5 helmuga nagusiak	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Ehunak, jantzigintza, larrua eta oinetakoak <ul style="list-style-type: none"> - 53. Lurreko beste garraio batzuk eta salgaiak - 47. Eraikuntza - 58. Ostalaritza - 12. Ehunak, jantzigintza, larrua eta oinetakoak - 49. Handizkako merkataritza 				

PUBLIZITATEA

Aldagai nagusiak	Enplegua (2022.01.01)	Enpresak (2022.01.01)	Enpleguaren bilakaera vs 2020.01.01	Euskadiko enpleguaren %	Lanaren/enpresaren batez besteko tamaina
	3.698	1.207	% 3,27	0,41	3,06
Iruzkinak	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Pandemiaren aurreko maila argi eta garbi gainditu duen sektorea da. ◆ Horri esker Euskadiko enplegu osoan duen ordezkartza % 0,39 izatetik % 0,41 izatera pasa da. ◆ Enpresa-kopuruak % 5,2 egin du gora. ◆ Hortaz, enpresa bakoitzeko batez besteko enplegua 3,12 izatetik 3,06 izatera pasa da. 				
Potentzialki lotuta dauden produktu eta/edo zerbitzuen 5 helmuga nagusiak	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Publizitatea eta marketina <ul style="list-style-type: none"> - 70. Publizitatea eta merkatu-azterketak - 63. Finantza-zerbitzuak, aseguruak izan ezik - 76. Administrazio publikoa - 10. Edariak - 49. Handizkako merkataritza 				

BIDEO-JOKOAK

Aldagai nagusiak	Enplegua (2022.01.01)	Enpresak (2022.01.01)	Enpleguaren bilakaera vs 2020.01.01	Euskadiko enpleguaren %	Lanaren/enpresaren batez besteko tamaina
	61	13	% 125,93	% 0,01	4,69
Iruzkinak	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Enplegu gutxiko sektorea bada ere, azken urteetan izandako hazkunde sektoreko nabarmenena izan da argi eta garbi. ◆ Enpresa-kopuruak % 44,4 egin du gora. ◆ Enpresen batez besteko langile-kopurua 4,69 da. 				

Iturria: autoreak berak egin du, txostenean aipatzen diren iturri desberdinak kontuan hartuta (Eustat, INE)

| BIBLIOGRAFIA

- Bhowmik, R, Debnath, G.C., Zafar, R.F., Lormon, B.L. (2021) Creative industry in terms of COVID-2019 pandemic: European countries responsive measures. Pressburg Economic Review. December 2021. 1. liburukia, 1. zenbakia, 9-17 or. ISSN: 2754-2556 DOI: <https://doi.org/10.5281/zenodo.7517131>
- 5/2022 DEKRETUA, otsailaren 11koa, lehendakariarena, zeinaren bidez deklaritzen baita EAEn amaitu dela COVID-19aren pandemiaren ondoriozko osasun-larrialdiko egoera, abenduaren 2ko 44/2021 Dekretuaren bidez deklaratu zena. EHAA, 31. zk., 2022/02/12. Eskuragarri hemen: <https://www.legegunea.euskadi.eus/eu/eli/-/eli/es-pv/d/2022/02/11/5/dof/eus/html/>
- Eusko Jaurlaritza (2021). Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Plana Euskadi 2030. Kultura: COVID-19rako ezohiko neurriak. Eskuragarri hemen: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/pcti_euskadi_2030/es_def/adjuntos/PCTI-EUSKADI-2030.pdf
- Klhystova, O., Kalyuzhnova, Y., Belitski, M. (2022) The impact of the COVID-19 pandemic on the creative industries: A literature review and future research agenda. Journal of Business Research, 139. or. 1192-1210 DOI: <https://doi.org/10.1016/j.jbusres.2021.09.062>
- Orkestra 2021. Lehiakortasunari buruzko 2021eko txostena. Ongizatea helburu duen lehiakortasuna eraikitzea. Deustuko Unibertsitatearen argitalpenak ISBN: 978-84-1325-134-9
- 463/2020 Errege Dekretua, martxoaren 14koa, alarma-egoera deklaritzen duena COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko. BOE, 67. zk., 2020/03/14. Eskuragarri hemen: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2020-3692>
- 10/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 29koa, zeinaz berreskuratzeko baimen ordaindu bat arautzen baita besteren kontura diharduten eta funtsezko zerbitzuak ematen ez dituzten langileentzat, COVID-19aren kontrako borrokan biztanleriaren mugikortasuna murrizteko

asmoz. BOE, 87 zk., 2020ko martxoaren 29koa, 27629.-27636. orrialdeak. Eskuragarri hemen:
<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2020-4166>

Retegi, J., Carrillo, F., Eguia, I., Oleaga, M., Vázquez, R. (2022a) Kultura eta Sormen Industrien Perimetroak Euskadin. Kultura- eta sormen-industrien posizionamenduari buruzko azterlanak. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. ISBN: 978-84-457-3639-5.

Retegi, J., Eguia, I., Oleaga, M., Salado, J.P. (2022b) COVID-19aren inpaktua EAEko Kultura- eta Sormen-Industrietan. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. ISBN: 978-84-457-3658-6.

UNESCO (2021). Kultura eta sormen industriak COVID-19aren aurka. Inpaktu ekonomikoen egoera.



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura



Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco